

EDER-LANAK (2)

Versalles

Tokia ez zan ain egokia: Ziporra ugari, osasun-kalte lekua bera, edateko urik ez inguruetan, sukarra sarritan, landara gitxi urrean eta XIII Luis erregeak nai eban eiztaritza egiteko pizti gitxi eskuragai. Beste etxerik ez egoan an erregeak eukan eiztaritzarako toki bat baiño.

Olako toki baragarri baten egin bear zan XIV Luis erregearen aginduz jauretzerik ederrena, errege bakar-zaleen ezaugarri izango dan jauretxea. Gatxa zala olako toki baten jauretxea egitea? Eta zer ardura gaiztasun orrek errege eguzkiari? Egille trebeak eta dirua baiño ez ziran bear.

Le Vay izango zan etxegiña. 1661n. urtean asi zan etxegintza. Laguntzailleak oneik: apainketarako Le Brun margolaria eta baratzak egiteko ta ura ekarteko Le Notre. Egunero etorten jaken erregea bera lanaren aurrerabidea ikusteko pozez. Au ezerk ez eban ikaritzen ez txauketak (bere jateko tresnakaz txanponak egin bear izan ebazan), ez langilleen artean sortu ziran gaisoak eta ez esku-langilleak iges egiteak. Izan be 1678n. urteko neguak otz-otzak izan ziran.

Ogeta amasei milla gizon, Frantziako alde guztietan batuak, egin eben lan Errege Eguzkiaren aintzarako, 6000 zaldi ibilli ziran arriak, ageak eta artzurizko totxoak ekarten. Zortzi milla milloi pezeta txautu ziran etxegintzan.

Apurka-apurka, iñongo erregek eukan jauretzerik ederrena eginda agertu zan: aurreko ormeak 580 m.ko luzeerea eukan, or barruan 575 leio, bebarru aundiak, alboetan etxe asko, eta Paris'era bide eder bat.

Amaitu baiño len etxegin barri batek artu eban lana, Jules Harduin'ek. Margolariak, irudigilleak, artzurizaleak, urre-langilleak eta igeltzariak lan ikusgarria egin eben. Margorik ugariena zuria ta urrekolorea ziran.

Baratzak ureztatzeko asmabide barriak sortu ziran. Sena ibaitik ekarri bear zan ura eta orretarako Marly deritxon errian uragak (ur-bonbak) ipiñi ziran, guztiz 221 uraga ura Senatik 162 m. gora jasoteko eta andik Versailles'era egunero 6.000 m³ ur bialtzen ziran. Tramankulu ikaragarri au ondo ibilli zan 1806n. urtera arte, 60 urtean.

1682n. urtean joan zan ara bizi izatera XIV Luis Errege-Eguzkia eta antxe bizi izan zan aundikiro. Ara joaten ziran aundiki edo leiñargi guztiak burua makurtzen. Dana egiten zan oikune ederrez: Jagitea, jatea, ogean etxutea... beti bardin eta beti aundikiro.

Jaretxe orretan, zugaztietan naiz aretoetan egiten ziran jaiak be arrigarriak ziran, baiña, au aundiena, andixek urteten eben Frantzia guztirako aginduak eta gudaroste guztientzat egin-bearrak. Ori orrelan izan zan arik eta 1789n. tutean an bizi zan XVI Luis erregea andik atera eta Tullerias'era eroana izan arte. Iraultza-aldia zan au.

Jauretzerik ederrena ez da orain besterik urrezko itxura bat baiño, galdu bear zan mundu arro baten itxura utsa, erria izertzan eta negarrez bizi zan erregearen aundi-usteari eusteko.

Urteen joanean or izan da alemanen gudan-etxea, or egin zan 1871n. urtean Hiler'ek ainbestean gorroto eban Versailles'ko ituna. Gaur ez da besterik museoa eta turisten ikusgaia baiño.

Eiffel Torrea

Klasiku barriaren aldian, iturriak eta burdiñezko lanak ugaritu egin ziran. Onein artean sartzen dogu 1889n. urtean Parisen egindako Eiffel torrea. Urte asko igaro dira arrezkero, baiña torre ori gaur be ikusgarria da, esanguratsua eta trebe-lan aundia be bai.

Milla oiñeko (304,8 n) goiorea izango eban torrea egiteko asmoa 1833n. urtean agertu eban Trevithick inglesak baiña orretan geratu zan. Berrogeta amar bat urte geroago Eiffel'ek egin eban egitasmo barria, baiña 300 m.'ko goiereaz, gaiñean argi aundi bat eukala. Azkenean Salerosketarako Ministeritzak onartu eban Eiffelen asmo au: Oiñean alde bakoitxean 125 m. izango ebazan.

Non kokatu torre ori? Orretarako 107 toki agertu ziran eta azkenean Marte'ren zelaiak aukeratu ebezan.

Ordurako 54 urtekoa zan Eiffel, oso ezaguna zan burdin erakundeen munduan eta lan asko ta aundiak egiten ebazan munduan arlo onetan, baiña berak esaten eban lez, lan aundi au egin ebanean bere beste lan guztiak aitzuta geratu ziran.

1886n. urtean asi eban lana: Sena-ondoan 14 m. lurpean sartu zan 26 m' eukazan oiñarria. Frantziar asko pozik egozan burdin-lan aundi au egiten zalako, baiña aurka be agertu ziran idazleak, margolariak, irudigilleak eta etxegiñak, edertasunaren eta egokitasunaren izenean. Lan ori alperrekoa eta iretxoena zala esan eben. Onein artean bat Guy de Maupassant idazlea izan zan. Dana alperrik. Frantzia laterriak Eiffel torrearen bazkuna onartu eban eta lanak aurrera jarraitu eben. Lau urte barruan lenengo

maillara arte egin zan eta gero iru ekinalditan gora arte.

40 marralarik egin eben lan urte bitan 15.000 burdin age eratzeko eta Clichy lantegiak egiten ebazan. Besterik ez zan bear biurkiñakaz lotzea eta alkarri itsatsita iztea baiño.

Dana egin ondoren, 9.700 tone da torrearen astuntasuna. Esandako egunerako amaitzeko, egunean amar ordu egin bear ziran lanean eta epaillaren 31n. egunean ipiñi zan erpiñean iru koloreko ikurra. 1889n. urteko orrillaren 6n. egunean izan zan askunde-jaia.

Eiffel torrea gaur pariskide ezaguna da, naizta batzuk oraindiño be esan Parisentzat kaltegarri dala. Gaur maite dogu burdiñearen sasoiko oroigarri eder au.

Grezia'ko uri-erpiña (Akropolis)

Grezia aitatzen danean Atenas dogu gogoan eta Atenas aitatzen danean bertako uri-erpiña edo akropolis dogu guren: Or agertzen da klasikuen sena eta European izango dan jakintzak bear dauan edertasuna...

Uri-erpin ori 156 m. dago itxasoa baiño gorago eta 80 m. Atenas baiño gorago. Orain 4.000 urte, arribarrialdian bizi ziran or gizak eta Mizenas'en sasoiko da, 1.200 urte K.a.'tik lenengo etxe sendoa. Orma batzuk agiri dira oraindiño.

Greziarrak K.a.'ko VI Qizaldian egin ebezan Atenearen eta Nike ren jauretxeak. Ez ziran luzarorako izan: 480n. urtean persiarrak etorri eta apuro ebezan. Temistokles'ek barriro egin nai izan ebazan, baiña ez eban gauza aundirik egin.

Perikles izan zan nagusi k.a.461n. urtea ezker eta onek egin eban gaur agiri dan eder-lan ikaragarria, orretarako etxegiñak, margolariak eta irudigilleak, bat Fidias, artuta. 1.700 milloi pezeta inguru kosta zan dana.

Lenengo egin zana Partenon izan zan. Auxe da Atenas'eko jaretxe nagusia. Iktinios ek egin ebazan irudiak, Kalikrates izan zan etxegin eta Fidias apaintzaille. Oinarrrian lauki-luze bat dauka 70x30'koa, gero 46 irudi dorioen tankerakoak eta 10'koa goiereaz. Ertz edo friso landuak munduko ederrenak ziran. Erdian Atenearen irudia, Fidias'ek eá 13 m'ko goiereaz eta urrez eta marfillez egiña.

Bigarrena Perikles en aldi onetan Atenea-Nike jauretxea da. Jonio tankeraz egin eban jauretxe txiki au Kalikrates'ek: neurriak 5x8, ageak 4 m'koak, ertz landua, frisoa, 45 zm.'koa. Urteen joanean turkiarrak apurtu eben eta Ross alemanak ber-egin eban 1835n. urtean.

Toki onetan laugarren ederlana Erekteion jauretxea izan zan, baiña Peloponeso'ko guda etorri zan. Onek 30 urte iraun eban ete ereikintza geldituta egon zan. 429n. urtean Perikles il zan izurriaz. Geroago urte bitan amaitu zan Erekteion.

Perikles'en gizaldi au gomutagarria da Europa'ko ederlanen edestian eta gizarte osoarenean be bai.

Granadako Alhambra

Granada'ko Alhambrari buruz gauzarik ederrenak esan dira: Alejandro Dumas'ek, esaterako, "Jaungoikoak alhambra egin eban, bere zeruko egoitzaz iñoz aspertuko ba litz ara joateko". Beste olerkari batzuk Andaluziako bitxia, gauzatutako amesa, eguzkiak maite dauan lurra eta olakoak esan dautsoez. Auxe da, izan be, Europa guztian dan islamdarrak egindako ereikintza guztietan ederrena. Eurak galdu daben almen aundiaren ezaugarririk onena.

Sartu baiño lenago jakuz arrigarri bere torre ta orma gorrizkeak eta barruan ikusten diran esku-lan zeatzak arrigarriagoak dira. Alhambra izenak gaztelu gorri esan gura dau.

Granadak 16.000 biztanle ba-ditu baña ez dau izan ezelako garratzirik 711n. urtean arabeak gure arterea etorri arte. 1031n. urtean erreñu bereizi biurtu zan eta arrezkero jakintzaren eta lan-ederren sorleku ta iturri izan da.

Alhambra bera 1232n. urtean asita egin zan.

Errege Katolikuak Granada artu ebenean, Alhambra be eurakandu eben ete BoabdiPek urten egin bear izan zan eban Zazpi Zoru deritxon atetik eta ate au ikur bereizi bategaz betiko itxita geratu daitela agindu eban. Urrean dan Gain Edutzutik begiratu eutson alhambra'ri negarrez eta bere amak isekaz esan eutson: Negar egizu emakmneen antzera, ez dozu jakin gizonak lez zaintzen-eta.

Alhambrako aretoak gitanuen eta bidelarien egonleku biurtu ziran, baiña Napoleon'en guda-inguruan Wellington Dukeak apur bat konpondu eban. 1812n. urtean frantziarrak zati bat apurtu eben eta XIX gizaldi barruan barritzatu zan dana. Gaur eder-lan ikusgarria da, etxe ederren artean, baratzik ederrenak agiri dirala.

Baiña alhambran dan alderik ederrena arabaiarren jauretxea da: Kanpotik ez da ain ederra, baiña barrua benetan arrigarria, leoien be barrua or dala. Onek artzurizko amabi leoi dira eta iturriari eusten dagoz. Eta au be arrigarria: Arabeak ez dabe iñon be piztirik ez gizakirik irudikatzen, baiña emen bai. Or dago Komares torrea eta barruan enbaxadoreen aretoa. Or batu ebazan azkenengoz Boabdil'ek bere aolkulariak.

Ikusgarriak baita alhambran ugaztegi edo baiñulekuak. Lurpean dagoz eta batzuk umeentzat dira, beste batzuk lurrunezkoak eta beste batzuk emakumeentzat. Toki orretan il ebezan abenzerrajeak.

Ara zer diñoan alhambran dagoan idazki batek: Eder egin nau Alak eta zeruko izarrak be gelditu egiten dira niri begiratzeko.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK